


EMOGNOSIA

MITXELKO URANGA



MIGUEL DE UNAMUNO XXV. SARIA
BILBOKO UDALA

erein

Emognosia

Egia-ostea, konspiranoia eta negazionismoa

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Bilboko Udalak antolatutako Miguel de Unamuno XXV. Saiakera Lehiaketaren 2025eko deialdiaren euskarazko saria jaso du. Liburu hau Bilboko Udalak argitaratua izan da.

1. argitalpena: 2025eko irailean

Azaleko irudia:

Ivan Landa | Erein

Liburuaren diseinua eta maketazioa:

A. Beltza | Erein

© Mitxelko Uranga

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-072-8

L. G.: D 721-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com

Emognosia

Egia-ostea, konspiranoia eta negazionismoa

Mitxelko Uranga

Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno XXV. Saria



Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan antolaturiko XV. Juan San Martin bekaren irabazlea, 2021eko deialdian. Joseba Gabilondok, Eduardo Apodakak eta Mitxelko Urangak aurkeztutako «Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia» izeneko proiektuaren «egia-ostea» deritzon partearen I. zatia.

AURKIBIDEA

SARRERA	11
EGIA-OSTEA	17
MEFISTOFELES	61
KONSPIRANOIA	121
NEGAZIONISMOA	145
ESZEPTIZISMO PERSPEKTIBISTA	167
BIBLIOGRAFIA	181
EPAIMAHAIAREN AKTA	189

SARRERA

Bazen behin Fausto izeneko jakintsu bat, Alemaniako herrixka txiki batean bizi zena. Fausto handinahia eta ezagutza-egarria zen, baina bere ikasketak eta ahaleginak gorabehera, ez zen inoiz gustura sentitzen.

Gau batean, etsipenezko une batean, Faustok deabruari deitu zion botere eta jakinduria eske. Mefistofeles, deabru maltzur bat, haren aurrean agertu zen, eta itun bat eskaini zion: arimaren truke, Faustok ezagutza eta plazer lurtarra eskuratuko zituen bizitza osoan. Faustok, anbizioak itsuturik, ituna onartu zuen eta lizunkeria, abentura eta boterezko bizitzan murgildu zen. Hala ere, zenbat eta gehiago lortu, orduan eta hutsago sentitzen zen. Bere arrakasta eta konkistak gorabehera, Faustok ezin zien ihes egin atsekabe eta etsipenari.

Amaiera hurbil zegoenean, Fausto damutu egin zen bere hautaketaz, eta berrerospena bilatu zuen, baina beranduegi zen. Bere arima kondenatuta zegoen deabruarekin egindako hitzarmenagatik.

Emognosia hipermodernoa da, Hipermodernitateak du berezko, aurretiaz ez baita horrelakorik ezagutu. Agertu ahal izateko, baldintza jakin batzuk ziren beharrezkoak. Baldintza horietan sakontzen joango naizen arren lanean zehar, sarrera honetan nagusia aurreratu nahi dut, irakurlea kokatze aldera: gehiegikeria. Bereizgarri horrek definitzen du nagusiki bizi dugun garai hipermodernoa; eta gizaki hipermodernoa Faustoren legenda zaharraren irakurketa hipermodernoak definitzen du, handinahiz eta ezagutza-egarriz bizi den egungo gizakia deabruarekin egindako itunaren menpe bizi baita, anbizioak itsuturik bizi baitu lizunkeria eta abenturazko bizitza, zeinak, paradoxikoki, ez

duen asetzen. Fausto hipermodernoa abiadura handian bizi da, gehiegikerian murgildurik, boteretsu eta jakintsu delakoan, benetan areagotzen dena bere bizitzaren hutsa eta ase ezintasuna direnean, atsekabea eta etsipena, alegia. Izan ere, «gozoen lorategia» eskaintzen digun egungo Mefistofeles maltzurra, hiperkapitalismoa, benetan «zorigaitz fabrika bat da» (Berardi, 2015), eta ez zoriontasunarena. Gure arimaz jabetu da, eskaini diogu eta, jada, beranduegi da.

Hipermodernitateaz arituko naizen honetan, argi gera dadila egungo joerak azpimarratzeko tresna kontzeptuala baino ez dela, eta aski termino anputatua, mendebaldeko kulturari baino ez baitio erreferentzia egiten. Zentzu horretan, Fausto hipermodernoaz mintzo naizenean ere, mendebaldeko kulturako gizabanako orokortu edo generikoaz arituko naiz, ahaztu barik gizabanakoen artean zein gizabanakoaren baitan aniztasuna dela nagusi. Izan ere, *hiper*-aurrizkiak anplitudea edo areagotzea eta multitudine edo anizkoiztasuna ditu oinarri (Ascher, 2009), aurrekaria baino modernoagoa izateaz gain, gizabanako hipermodernoak dimentsio anizkunak dituelako, zeintzuen artetik bidaiatzen duen hipertestuetan egin ohi den bezala. Hipermodernitatean, gizabanakoa zein errealitatea multidimentsional gisa agertzen zaizkigu. Identitate modernoa fragmentatu egin da, identitate mordoari ateak irekiz.

Hipermodernitatea aurreranzko ihesa da, ziztu bizian, dena gertatzen baita hiperabiadurarekin, modu areagotuan edo gehiegizkoan (Lipovetsky, 2008): hiperkapitalismoa, hiperindibidualismoa, hipermerkatua, hipertestua, etab.; bestela esanda, modernizazio zoro eta neurrigabea da, zeinetan muturrera jotzeko joera den nagusi; era berean, ziurgabetasuna eta egonezina areagotzen dira, i noiz ez bezala.

Ez egonezina inoiz baino handiagoa delako, etorkizun ezezagunari zaion beldurragatik, ziurgabetasuna itzela delako baizik. Zoriaren gurpil magikoaren legenda barruan bizi gara. Gurpilak etenik gabe biratzen du, igotzen eta jaisten da aldaketen betiereko itzulera amaigabea. Gurpilaren goialdean daudenek arrakasta, oparotasuna eta zoriona eza gutzen dute, eta behealdean daudenek, oster, porrota, urritasuna eta zorigaitza. Aitzitik, gurpila etengabe mugitzen denez, behealdekoei itxaropena baino ez zaie geratzen, goialdekoek ziurgabetasunean eta beldurrez bizi behar duten bitartean. Gurpil hipermodernoaren berezitasuna zera da, ordea, horren bizkor mugitzen dela, mugitzen denik ere ez dirudiela eta, hortaz, gehiengo batek uste du goialdean dagoela beti, eta jaitsiko ote den beldur dago une oro. Errealitatea, berriz, oso bestelakoa da, gehiengo bat benetan behealdean dagoelako, gero eta gutxiago baitira goian mantentzea lortzen dutenak.

Egungo krisian, fragmentazioa, bizkortasuna, ziurgabetasuna eta beldurra dira nagusi, ahaztu barik arestian aipatu gehiegikeria. Marc Augé-k (2008) hiru mugimendutan ikusi zuen gehiegikeria nabarmen hori. Batetik, denboraren ikuspegitik, hiru dira gehiegikeria nagusiak: informazio, irudi eta indibidualismo gehiegikeria. Dena bihurtu da berehalako eta bat-bateko, «erosi-bota» itxurako produktuak salgai dituen *self-service* ereduko merkatu handian. Zentzu metaforikoan, esan daiteke egungo gizabanakoa Minotauroaren labirintoan bizi dela. Batetik, Dedalo arkitektoak egindako labirintoak (des)informazioaren garaia sinbolizatzen du, labirintoko munstroak sartzen den oro irensten du-eta; heroiak direla uste duten horiek bide zuzena bilatzen dute informazio gehiegikerian, jakin barik munstroak irentsita bukatuko

dutela; bestetik, labirintoko munstroak, Minotauroak, irudi kontraesankorren ugaritzeari egiten dio erreferentzia, abenturazale edo hermeneuta guztiei gailentzen zaien mezu eta irudi uholdeari; azkenik, Teseok, Minotauroari aurre egiten dion heroiak, indibidualismoa eta bilaketa pertsonala adierazten ditu, etengabe aldatzen ari den mundu kaotikoan indibidualki saiatzeko baita bere bidea aurkitzen. Historia hipermoderno honetan, berriz, heroiak ez du arrakastarik. Saiakera indibiduala antzua da.

Bestetik, espazioaren aldetik, lekuetatik ez-lekuetara egin da salto, erlazio sozial iraunkorrek sortzeko arazoak sortuz. Ez-lekuak identitate historikorik gabeko lekuak dira, munduko bazter desberdinetan egonda ere, elkarren berdinak eta elkarren artean bereizezinak direnak, hiri ikusezinak bezala. Italo Calvino-ren *Le città invisibili* lanean, Marco Polo izeneko bidaiariak Kublai Khan enperadoreari deskribatzen dizkio ezagututako hiri ikusezinak. Besteak beste, Eufemia izeneko hirian pertsonen arteko deskonexioa dago memoria partekaturik ez dagoelako, Eusapian ez dago elkarrekin komunikatzerik distrakzio eta zarata izugarriagatik, eta Zenobia izenekoan denak bizi dira galdurik, Minotauroaren labirintuaren parekoa baita hiriko kale sarea. Leku fisikoak ez diren hiri ikusezin horien modukoak dira ez-leku hipermodernoak, bakoitzak bere ezaugarri eta bereizgarri propioak dituen arren, espazio inpertsonal eta uniformeak izatea partekatzen dutelako: anbiguo, efimero eta anonimoak.

Azkenik, irudiari dagokionez, medioek dena berdintzen dute, fikzioa eta errealtatea maila berean jarritz. Telebistan, *reality-show* batetik, Gazako sarraskiko irudietara eta, hortik, futbol partidu batera egiten dugu salto arazo barik, irudi

eta mezu horien artean etenik ez balego bezala, den-denak maila bereko errealitate neutro hutsak balira bezala. Ray Bradbury-ren *Fahrenheit 451* lanean bezala, hutsik dauden edukiekin entretenitzen gara, apatia eta alienazio egoera baita bizi garen bitartean. Gobernarien komunikazio manipulazioa eta zentsuraz gain, jendea muturreko biolentzia eta azaleko programak ikustera dago ohitua, eta errealitatearen eta fikzioaren arteko muga lainotsua gertatzen da. Eleberriko pertsonaiak halako moduan daude ohituak oldarkortasuna eta biolentzia ikustera, jada sentitzeko gaitasun guztia galdu dutela. Ez dago ez enpatiarik eta ez errukirik. Azkenik, heriotza entretenimendu eta espektakulu bilakatu delarik, giza bizitzak berezko balioa galtzen du.

Paradoxikoki, emozioak neutralizaturik daudela dirudienean, estrategia ororen motorra eta oinarri bilakatu dira. Ez dago paradoxarik benetan, oster, baliogabetu diren emozioak gizakien artekoak baitira, sareak sortzekoak, elkarrekin lotzekoak eta elkarrekin aldaketaren alde borrokatzearenak, gizabanako indibidualenak ez-tandarazi eta balio bihurtu baitira. Hipermodernitatean arrazoitik emozioetara jauzia egin dela esaten denean, hortaz, dimentsio indibidualaz ari dira nagusiki, baina ez bakarrik. Gizabanako hipermodernoa greziar mitologiako sirena edo itsas laminek kantu hipnotikoen menpe bizi da, katastrofe eta istripu arriskuen menpe. Mitologiaren arabera, edertasun handiko izakiak dira, baina natura suntsitzailea dutenak. Marinelak bailiran, gizabanako hipermodernoak, emozioek gidaturik, eskaintzen zaizkien edertasunen bila abiatzen dira, eta alarma pitz dezakeen arrazoia baliogabeturik, desioak eta pasioak kontsumiturik bukatzen du. Desioak gidaturik kontsumitzen dituzte etengabe mota

guztietako produktuak, horren abiadura bizkorrean eta modu areagotuan, azkenik desioak kontsumiturik amaitu behar dutela, Faustok bezala. Oinarri hori du, hitz gutxitan, emognosiak.

Emognosia nagusi den garai honetan baino ezin dira ulertu, hortaz, lan honetan landuko diren egia-ostea, konspiranoia eta negazionismoa, azken horiek lehenago ere eza-gutu ditugun arren. Emognosia zer den, oster, lana irakurri ahala ulertuko du irakurleak. Ez izan presarik, bizkortasuna eta inpazientzia ez baitira onak.

EGIA-OSTEA

Erroa(k)

Zer da egia? Zer adierazten du «egia» hitzak? Bitxia da, gaur egun inork ez lukeelako zalantzarik izango lehen galderaren inguruan, baina, paradoxikoki, jende gehienak arazo larriak izango lituzke bigarrenari zehaztasunez eta erraz erantzuteko. Haatik, azken finean, galdera batek ez al du bestea inplikatzeko? Hau da, egia zer den jakiteko ez al da ezinbestekoa haren definizioa ezagutzea? Ez al ditugu hitz asko alde batera uzten gure elkarrizketetan, benetan zer esan nahi duten ziur ez jakiteagatik? Nolako komunikazioa litzateke inork erabiltzen dituen hitzen esanahiak ezagutuko ez balitu? Ez legoke komunikaziorik, hitzezkorik ez behintzat. Orduan, zergatik erabiltzen dugu hain maiz eta horren erraz «egia» hitza? Imajinatzen dut «askatasuna» edo «arima» bezalako beste hitz batzuk erabiltzen ditugun arrazoi beragatik dela, horietariko bakoitzarentzat definizio zehatzik eta bakarrik ezagutzen ez dugun arren, denok partekatzen dugun ideia edo irudi oso orokor bat daukagulako, alegia; eta, beraz, besteak komunikatu nahi diguna uler dezakegulako gutxi gorabehera, kasu gehienetan eta lagunarteko elkarrizketei dagokienez, bederen. Definizio zehatza

bilatzen tematuko bagina, berriz, arazoak agertuko litzaizkiguke berehala; horren bitartean, lagunarteko hizkeran edo hizkuntza arruntean, onartu ohi da, beste barik, egia dela errealitatearekin bat datorrena. Hori da, azken batean, hiztegi arrunt batean aurkituko genukeena.

Euskaltzaindiak horrela definitzen du egia: «Denarekin, izan denarekin edo izango denarekin bat datorren gauza»; RAEren arabera, «*Conformidad de lo que se dice con lo que siente, se piensa o se sabe*» (Esaten denaren adostasuna, sentitzen, pentsatzen edo jakina denarekin); Laroussek honako hau dio: «*Conformité de la pensée avec son objet. Ce qui est vrai*» («Pentsamenduaren eta bere objektuaren arteko adostasuna. Egia dena»); Oxfordeko hiztegian, berriz, «*The quality or state of being true; that which is true or in accordance with fact or reality*» aurkitzen dugu («Egiazkoa izatearen kalitatea edo egoera; egiazkoa dena edo egitateekin zein errealitatearekin bat datorrena»); azkenik, Duden alemaniarrean honako hau irakur daiteke: «*Übereinstimmung mit der Wirklichkeit, der Sachlage; das Wahre*» («Errealitatearekiko edo egoerarekiko adostasuna. Egiazkoa dena»). Labur esanda, errealitatearekiko adostasuna edo errealitatearekin bat etortzea. Horrela ulertu ohi dugu, ezta? Errealitatearekin bat baldin badator, egia da; bestela, gezurra.

Hala ere, auzia ez da dirudien bezain sinplea, definizio horien gainera ez delako adostasunik lortu *egia* hitza-ren definizio zehatzaren inguruan; ez behintzat hizkuntza-ren erabilera arruntaz harago joanez gero, maila filosofikoan arazoak suertatzen baitira. Horrenbestez, eta hurbilpen gisa, begira diezaiogun etimologiari edo, bederen, erro kultural-
lei, gauzak argitzen saiatze aldera. Mendebaldeko kulturari bagaiozkio, eta onartuz kultura horren oinarri kulturalak

judu-kristaua, greziarra eta erromatarra direla nagusiki, ikus dezagun zelan definitu zuten haiek «egia». Hebrerazko hitza *emunah* da, zeinak «fideltasuna» edota «fedea» adierazi ohi duen; grekeraz *aletheia* erabiltzen zuten, «beloa kentzea edo ezkutuan dagoen hori agerian uztea» adierazteko; azkenik, latinerako *veritas* hitzarekin, erromatarrek, aurreko bi adieren nolabaiteko nahasketa eginez, «adierazpenen zehaztasuna» adierazi nahi zuten.

Hirurek hartzen dute egia funtsezko printzipiotzat, baita egiazkoa eta faltsua dena bereizteko beharra ere, horretarako ikuspegi eta bide desberdinak proposatu arren. Izan ere, ikuspegi latindarra arestiko definizioetatik hurbilen dagoena den bitartean, perspektiba hebrearrak edo juduak Jainkoarekin eta harekin lotutako moralarekin lotzen du egia, greziarrak bilaketa konstante batekin lotzen duten bitartean. Zehazkiago, tradizio juduan, batetik, egia jainkozko errebelazioarekin dago hertsiki lotuta, Jainkoaren hitz errebelatuarekin, berarekin erlazionatuz baino ezin baitira ezagutu printzipio etiko eta moralak; greziar tradizioan, bestetik, perspektiba filosofikoagoa eta arrazionalagoa da, eta ezagutza objektiboarekin lotu ohi da, errealitatea arrazoiaren bidez baino ezin baita ezagutu. Kultura bietan egia ezkutuan badago ere, juduek errebelazioaren bidez ezagutzen dute eta greziarrek, ostera, bilaketa arrazionalaren bidez.

Baliteke, karramarroaren antzera atzeraka egingo bagenu, topatuko genukeen egiaren lehendabiziko adiera erlijiosoa izatea, idazketa asmatu zeneko mitologia oparoak erakusten duen bezala. Adiera erlijiosoarekin zera adierazi nahi dut, egia jainkozko agerkunde gisa izan zela ulertua nagusiki; hots, antzinako kultura askotan uste zela egia izaki

jainkotiarrek edo goragokoez errebelatzen zutela. Egia jainkoek ziotena baino ez zen. Mitologia egiptoarraren arabera, adibidez, Atum jainko sortzaileak, behin jatorrizko kaosa zen Nunengandik atera zenean, ordenatu zuen kaos guztia bere hitz boteretsu hutsarekin. Horrela, Atumen sorkuntzak egia dibinoaren eta ordena unibertsalaren errebelazioa adieraziko luke. Jainkoaren hitza da egia eta, ondorioz, bere ahotik baino ezin du egia ezagutu gizakiak. Zer da egia? Jainkoaren hitza; mitologia hinduan ere, Bhagavad Gita-n irakur daitekeen bezala, Krishna jainkoak bere ikaslea zen Arjunari errebelatu zion egia gudu zelaian izandako elkarrizketa batean. Egia jainkoaren hitza da, zeinaren bitartez Arjunak ulertzen duen bere burua zein unibertso osoa, egia; mito greziar ezagun baten arabera ere, Prometeo titanak jainkoei sua lapurtu eta gizakiei eman zien horren teknika errebelatu zien neurrian, eta horregatik zigortu zuen Zeus-ek. Azken horren alaba, Aletheia, egiaren «jainkosa» zen eta, zehazkiago, egia errebelatuaren pertsonifikazioa.

Kasu hori da, egia jainkozko errebelazio gisa, *emunah* juduaren kasua, *Genesis* liburuko sorkuntzaren mitoak adierazi bezala. Jakina denez, *Genesis* kristauak *Itun Zaharra* eta juduek *Tanaj* deitzen dutena osatzen duten liburu-erretako bat da, erlijio errebelatu biek partekatzen baitute testua. *Tanaj*en aurkitzen dugu Moisesen *Tora*, jainkoak berak diktatu, idatzi eta Sinai mendian Moisesi emandakoa. Moisesen *Tora* lege perfektutzat daukate juduek, jainkoaren hitza errebelatutzat, egiazat. Zentzu horretan ulertu behar dugu, hortaz, «amen» hitza ere, lehenengoz juduek erabili eta ondoren kristautasunak eta islamak bere egin zutena. Orazio edo otoitzen ostean erabili ohi da hitz hau, esandakoa egia dela baieztatzeko, hitzaren benetako esanahia hori

baita, «benetan», kristautasunarekin «izan bedi» edo «hala bedi» gisa itzuli ohi den arren. Ez hori bakarrik, judaismoaren kasuan bederen, «fedea» adierazteko hitz edo erro bera erabili ohi baita.

Hebreerazko *amen* hitzak lotura etimologikoa du *emunah* hitzarekin, hitz biek partekatzen baitute *aman* erroa. *Aman* «sinistu» edo «fede izan» bezala itzuli ohi den heinean, *emunah* ere fede edo sinesmentzat hartu ohi da, *amen* esandakoarengan fedea eta konfiantza adierazteko erabiltzen den bezala; beste alde batetik, hirugarren hitz bat ere bada bi horiekin lotuta dagoena, *aman* erroa partekatzen baitu beraiekin: *emeth*. *Emunahk* eta *amenek* fedearekin eta leialtasunarekin lotura estuagoa duen bitartean, *emeth* «egia» edo «egiazko» bezala itzuli ohi da, funtsean hirurek «egia» edo «benetako» adierazten duten arren. Aldea zera da: *emeth* egia objektiboarekin, fidagarritasunarekin zein zintzotasunarekin lotuta dagoen bitartean, *emunahk* sinesmenari zein leialtasunari egiten diela erreferentzia.

Laburbilduz, batetik, tradizio juduan, egia hertsiki lotuta dago Jainkoarekiko eta Torarekiko (juduen legea) leialtasunaren ideiarekin. Egiak, alde batetik, zintzotasuna, osotasuna eta koherentzia eskatzen ditu bizitza moralean eta erlijiosoan; bestetik, egia Jainkoaren errebelazioarekin ere lotuta dago. Hebrear Biblian, Jainkoa azken egiaren iturritzat hartzen da, eta sinestunak Jainkoak errebelatutako printzipio eta aginduen arabera bizitzea espero da; azkenik, tradizio errabinikoan, egia bilatzeak eskrituren azterketa sakona eta juduen legearen interpretazioa barne hartzen ditu. Errabino eta aditu juduek mendeak eman dituzte Toran eta beste testu sakratu batzuetan jasotako egia espiritual eta etikoak aztertzen. Hitz gutxitan, egia jainkoaren hitz errebelatua

da, jainkoaren hitza, jainkoa: «Izan bedi argia» esan zuen Jainkoak, eta izan zen argia.

Aletheiaren kasua desberdina da. Ikusi dugu lehenago Aletheia egia errebelatuaren pertsonifikazioa zela hasieran, hots, jainko edo goreneko izaki batek errebelatutako egia. Hala ere, errebelatze horrek hartu zuen bestelako adiera bat, zeinaren arabera egia ezkutuan egotetik agerikoa izatera pasatzea zen helburua: argitara ematea, aurkitzea, demostratzea. Egia ez da, hortaz, jainkoak errebelatu behar duen ezer, gizakiak bere kabuz bilatu eta aurkitu behar duen zerbait baizik. Ez digu inork erakutsiko, guk geuk ezagutu eta aurkitu behar dugu. Egia bat bakarra da eta ezagutu daiteke. Tradizio greziarrear, beraz, egia errealtate objektiboarekin bat datorrela ulertzen da nagusiki. Alabaina, egia ezkutatuturik dago eta, horrenbestez, bilatu eta aurkitu behar da. Zelan bilatu behar den eta zertarako beste gauza bat da, greziarren artean ikuspegi anitz egon baitziren auzi horren inguruan.

Mitotik logoserako jauzian lehendabiziko filosofoek mitoak baztertu eta sakontasuneko egia zen *arkhéa* aurkitzen saiatu ziren arren, Parmenidesek itxura-errealtatea dualismoari eman zion hasiera, esentziaren beilatze-argitzeari, alegia. Eleakoaren aburuz, egia betierekoa eta aldaezina da; aldaketa, oster, pentsaezina eta, ondorioz, kontraesankorra. Itxurak ziria sartzen digu Egia edo Esentzia gisa aurkeztean eta, horrenbestez, filosofoaren xedea horiek biak bereiztea da. Horretan saiatu zen Parmenides eta zera ondorioztatu: arrazoiak egia eskaintzen ez digun bezala, zentzuen bidez datozkigun sentzazioak itxurak baino ez direla. Horrela dio Jainkosak Parmenidesen poema ezagunean: «Nire errebelazio guztia ezagutu behar duzu, eta eskura izan

behar duzu Egiaren bihotz ukigabea, hesi ederrekoa, egiazko sinesmenik ez duten hilkorren iritziak bezainbat» (Parmenides, 2002). *Aletheia* edo egia ezkutatzen zaigu, baina arrazoiaren bidez ezagut dezakegu.

Ildo beretik jarraitu zuen Platonek ere Egia *cosmos noetos* edo mundu adigarrian kokatzean, ideien benetako mundua asmatzean. Gauzen benetako esentzia ideietan dagoen heinean, eta gauzek nolabaiteko egia duten arren, Egia antzeman nahi duenak haitzulotik atera eta eguzkiaren argipean ulertu behar ditu objektu sentsibleak. «Azter ezazu, bada, esan nuen, zer gerta litekeen euren lokarrietatik askatu eta zorakeriatik senda balitez eta euren izaerari dago-kionez, honako gauza hauek gerta balekizkie: honako atxilotu bat askatu izan ledinean, eta bat-batean zutitzera, burua itzultzera, ibiltzera, eta argirantz begiratzera behartu izan ledinean, eta gauza guzti hauek egitean min har lezanean, eta distirengatik, lehen itzalez ikusten zituen gauzak ikus ezin litzanean, zer uste duzu erantzun lezakeela horrek inork esan balezaio lehen huskeriak bakarrik ikusten zituela, eta orain, izatearen askoz hurrago dagoelako eta izate benetakoagoaren aurrez aurre dagoelako hobeto ikusten duela, eta areago, igarotzen diren gauzen artetik bakoitza erakutsirik zer den erantzutera behar baleza?» (Platon, 1993). Platon idealistarentzat egia objektiboa eta betierekoa da, mundu fisikoaz haragokoa, forma perfektu edo ideietan dagoena.

Platonen ikaslea zen Aristoteles ez zen horren idealista izan, bere aburuz den guztia osakin hilemorfikoa zelako eta, horrenbestez, forma materiari loturik zegoelako nahitaez, eta ez bestelako eremu edo munduren batean. *Aletheia*, hortaz, ez da haragoko ideietan dagoen hori, egia gure pertzepzioen

eta errealtatearen arteko elkarrekikotasunean zegoela uste baitzuen mazedoniarrek. Bestela esanda, baieztapen bat egiazkoa izango da baldin eta errealtatearekin bat badator, egitateekin edo gertakariekin bat badator. Egia horri deitu zion «egia ontologikoa», benetako ezagutzarako asmatutako logikari lotutakoa «egia logikoa» deitu zion moduan, azken horrek argumentuaren barne koherentziari egiten baitio erreferentzia. Modu batean edo bestean izan, Aristotelesekin ezartzen da arestian esandakoa, *aletheiak* pentsamendu edo diskurtsoaren eta errealtatearen arteko bat etortzea adierazten duela.

Erromatarrek juduen eta greziarren eragina izan zuten arren, egia adierazteko *veritas* latinoak bere ezaugarri propioak zituen. Etimologikoki *verus* hitzetik badator ere, zeinak «egiazko» edo «benetako» adierazten zuen, arrazoiaren bidezko bilaketa greziarra eta jainkozko errebelazio judu-kristauaren zantzuak edo eragina ere biltzen zituen. Tiberio enperadorearen garaian, kontatzen denez, Fidias eskultoreari eskultura bat egiteko eman zitzaion urrearen zati bat lapurtu izana leporatu zitzaion. Alabaina, erromatarrek egia edo *veritas*i eta justiziari ematen zioten garrantziagatik, utzi zioten Fidias defendatzen. Fidiasek, bere aldetik, defendatzeko aukera emateko erregutu zuen, konbentzitura baitzegoen egia beti azaleratzen eta gailentzen dela, baldin eta errugabetasuna demostratzeko aukera ematen bazitzaion. Fidiasek eskatu bezala, balantzaren alde batean jarri zuten eskultura eta Fidias bera eta, bestean, eskultura egiteko emandako urrea. Fidiasen arabera, orekan egoteak demostratuko zuen errugabea zela, ez zuela ezer hartu berarentzat. Pisatu zutenean, Fidiasek esandakoa gertatu zen, eta, horrenbestez, askatu zuten. Egia gailendu zen azkenik.

Bestelako istorio erromatar baten arabera, Luzio Lizinio Kraso izeneko epaileari egokitu zitzaion gizon bat epaitzea lapurretatik. Gizonak errugabe zela defendatu arren, ez zegoen horren frogarik. Frogarik ez zegoenez, ez aldekorik eta ez kontrakorik, bestelako ikuspegi bati heldu zion epaileak. Gizona behartu zuen jainkoen aurrean zin egiten errugabe zela, jainkoen aurrean gezurra esaten zuenak haien zigorra pairatu beharko lukeelako sinesmen erromatarraren arabera. Gizonak zin egin zuen eta Krasok aske utzi zuen, batetik, zin egitea eta horren egiazkotasuna errespetatu zituelako eta, bestetik, gezurretan balego jainkoek zigortuko luketelako. Istorio horrek, azken batean, adierazten digu, besteak beste, zer nolako garrantzia ematen zioten erromatarrek egiari, beti ere zintzotasunarekin eta justiziarekin loturik. Izan ere, *veritas* erromatarrak ez zuen bakarrik zentzu objektiboa adierazten, ezta esaten zenaren eta errealtatearen arteko bat etortze hutsa ere, zintzotasunarekin, benetakotasunarekin eta gardentasunarekin ere hertsiki loturik baitzegoen; bestela esanda, egia ideal etiko eta moralarekin lotuta zegoen.

Erro(nk)a

Behin hona helduta, hasierako galdera berreskuratu behar genuke: zer da egia? Nola definitzen da egun? Zer harreman du aurrekari kulturekin? Ikusi dugu hiztegiek erreferentzia egiten diotela, oraindik ere, Aristotelesen *aletheiari*, hots, diskurtsoaren eta errealtatearen bat etortzeari. Alabaina, kultura popularrean zein sare digital eta komunikabide tradizioaletan azaletik begirada bat botatzean,